

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektu honen funtsezko jarduera, arazoak konpontzea izango da. Ekoizpena ez, izan ere, ez da ezer ekoiztu behar, ez da manufaktura-enpresa bat, zerbitzu bat baizik. Plataforma edo sareko jarduerak ere ez dira oso garrantzitsuak izango, egitekoren bat izango dute, baina oraindik ez dago oso seguru, baina zerbitzu honen berri emateko sare sozialak erabiltzea bururatzen bada, ez da arazorik egongo.

Zerbitzu honetan garrantzitsuena arazoak konpontzea da, horregatik sortu da. Etxerik ez dutenentzako edo eta beharrean daudenentzako egina, hain zuzen ere. Honez gain, gai honetan esperientzia duten elkarteekin harremanetan ere jarriko dira. Baita antolatzaile taldea sortu ere, hau da, lokal hori koordinatuko duten pertsona talde bat egongo da. Bukatzeko, diru-iturriak lortzea behar beharrezkoa izango da, izan ere, horiek gabe ezin izango da proiektua aurrera atera.